

Inprobisazioaren erabilera vs erabileraren inprobisazioa. Eredu baten premia

(Use of improvisation vs use improvisation. Need for a model)

ABARRATEGI GARAIGORDOBIL, Txema
Fagor Etxetresna Elektriakoak, Koop. Elkartea.
Garagartza auzoa, 39. 20500 Arrasate
jmabarretgi@fagorelectrodomesticos.com

Azaldu beharrekoa: Gure kooperatibak bizi duen nazioartekotze-prozesuan hizkuntzekin gertatzen ari zaiguna eta horrek urteotan lantzen dihardugun Euskara Planari nola eragiten dion. Helburua: Uneotan enpresan bizi ditugun gorabeherak eta horiei buruzko balorazioak eta sententzioak azalatu eta konpartitzea. Kontsiderazioak: Ez gaude eredu bat proposatzeko moduan oraindik. Eredu horren premia sentitzen dugu. Horretan dihardugu.

Giltz-hitzak: Nazioartekotzea. Erabilera. Hizkuntza.

Conceptos a explicar: Los problemas lingüísticos de nuestra cooperativa en el proceso de internacionalización y el modo en que ello afecta al Plan de Normalización del Euskara que tenemos en marcha. Objetivo: Comunicar los actuales vaivenes de nuestra empresa y compartir nuestras valoraciones y sensaciones. Consideraciones: Por el momento no podemos proponer ningún modelo, pero lo necesitamos. Estamos en ello.

Palabras Clave: Internacionalización. Uso. Lengua.

Concepts à expliquer: Les problèmes linguistiques de notre coopérative dans le processus d'internationalisation et la façon dont ils affectent le Plan de Normalisation de l'Euskara que nous avons mis en route. Objectif: Informer des hauts et des bas que traverse actuellement notre entreprise et faire part de nos évaluations et impressions. Considérations: Pour le moment, nous ne pouvons proposer aucun modèle, mais nous en avons besoin. Le projet est en cours d'étude.

Mots Clés : Internationalisation. Empleo. Langue.

1. SARRERA

Ondoren azaltzen dena esperientzia baten deskripzioa da, dokumentua idazteko unean bizitzen ari garen esperientzia batena, alegia. Ezin dugu, beraz, arazo edo eragozpen bati emandako irtenbide gisa kontatu. Aitzitik, errealitatea nola aldatzen ari zaigun, bizi ditugun aldaketa horiek gure hizkuntza ohituretan eta baita ohiturak aldatzeko ekimenetan nola eragin diguten eta horren inguruko pertzepzioa adierazten saiatuko gara. Egia da, pertzepzio horretatik abiatu garela, eraldatze sakona jasaten duten protagonistak izatetik haratago, egoera berrian eragile eta parte-hartzaile aktibo izatea ahalbideratuko diguten irizpide eta bitartekoen bila.

Hor kokatzen dugu esperientzia eta bizipen honen balioa, izan ere, uste baitugu, guri, gure kooperatiban, gertatzen ari zaiguna euskarak (eta hizkuntzek, oro har) mi-lurteko berri honetan izango dituen erronketako bat irudikatzen delako delako. Eta, erronka guztietan legez, helburuak, bitartekoak eta motibazioak, hein batean, hizkuntzaren eta hiztunen bizi-gogoaren eta haien gogoaren bizitasunaren berri emanen dutelakoan, horien deskribapenari lotuko gatzazkio.

Jakitun gara lan honetan galdera haina erantzun ez dela biltzen, edo galderetarako gai gehiago metatu dugula erantzunetarako baino, baina galdera horiek behar bezala planteatzearekin ere balioa aitortzen diogu, eskabidetik ere badutelakoan, eta hortik ekin diogu nazioartekotzean euskara bidaide bilakatzeko lanari, geure buruari eta gure lan-esparruko agenteei zer eskatu horretan asmatzen badugu, bidean aurrera goazkeelakoan.

Funtsean, industria arloko kooperatiba baten nazioartekotzeak hark euskararen normalizaziorako garatzen ari den proiektuari egindako ekarpena zehaztu nahi dugu. Ekarpena diogu, hasiera baten, internazionalizazioa eta euskararen aldeko jardunbidea gainjartzea edota aldi berean aurreratzea talka korapilotsu baten moduan irakurtzera makurtu baginen ere, dagoeneko, ohartu garelako, aukerak mehatxuak bestekoak direla eta, adimenez eta patxadatsu jokatzuz gero, euskararen erabilera eta prestigioa sendotzeko eskuarte bikaina eskaintzen digula egunetik egunera datorkigun etorkizun honek.

Europako hiru herrialdetan, nagusiki, bizi dugu egun gure enpresa-errealitatea eta ekoizpenaren, fabrikazioaren eta merkataritzaren deslokalizazioa da joko-zelaiaren ezaugarrietako behinenetarikoa. Testuinguru horretan landutako estrategiek markatzen dute gure eguneroko zeregina, gero eta gertuago sentitzen dugu atzerriko lan-tegien eta lankideen presentzia eta hura aintzat hartuta esan eta idatzi behar ditugu gure laneko kontu asko. Eta, tarteka, itaunaren harrak jotzen gaitu, Euskara ere deslokalizatzen ari zaigu?

Galdera horri eta legozkiokeen erantzunei buruzko notak biltzen ditu lan honek, gure uste apalean, diskurtso osoago bat egituratzen lagun dezaketena. Eta, bidena-bar, gure ahotsa entzunarazten dugu; egon liteke hor ere jasotzea merezi duenik, izan ere, hasiera bateko mezua errepikatzen dugu, baina urteen poderioz, esperientziari esker, gauza bera era desberdinetan esaten ikasten da, hori izan ohi da gauza berriak esateari ekiteko lehen hurbilketa.

Nazioartekotzean jarri dugu oraingoan enfasia baina kontakizunak Euskara Planaren bestelako gorabeherak irudikatzen ere balio duela uste dugu. Lantxo ho-

nen irakurraldiak ez zaitzala aspertu, adiskide, ez espero, ezta, uzta oparorik, soziolinguistikan dotore jantziko zaituen apaingarririk lerrootan, bihi gozoren bat dasta dezazun prestatu dizugu letra-jakitxoa, esaldi arteko hau, tarteka, ikuspegi ederrik gordetzen dizun ibilbidetxoa gerta dakizula nahiko genuke.

2. FAGOR ETXETRESNA ELEKTRIKOAK, KOOPERATIBA ELKARTEA

2.1. Historia abiapuntu

Mende erdia bete duen kooperatiba da gurea. Etxetresna elektrikoak, etxetresna txikiak eta sukalderako altzariak fabrikatu eta merkaturatzen dituen enpresa.

Mende erdia aipatuta, lehenetasuna emango diogu denbora tarte luze horretan geureganatu dugun esperientziari. Hari horretatik tiraka etxetresna elektrikoaren arloan asko dakien enpresa gara, aparailuon bilakaera zuzen-zuzenean bizi eta eragin duen langile multzoa gaituzue. Baina alferrekoa litzateke, aitorpen horren gibelean, bost hamarkada luzek ajeak ere badakartzatela ezkutatzea. Hala da eta, era berean, ohartuak gara berrikuntza dela horien ondorioei aurre egiteko sendabiderik arrakastatsuenak.

Aje bat aipatuko dugu, lan honi bete-betean dagokiona: erdarak gure lan jardunean, gure historian zehar, izan duen nagusigoa. Euskararen aldeko egitasmoak eta azken hamarkadako Euskara Planak, bereziki, dira bizio eta bisio (zilegi bekigu hitz-jokoa) horri kontrajarri diogun berrikuntza-ildoak. Eta, bidenabar, hau ere azpimarratzea nahiko genuke, alegia, euskararen erabilerak, gurean, berritzailetik ere asko duela eta euskararen erabileraren irudiaren osagai garrantzitsua dela (gizartean ere hedatu beharreko irakurketa litzateke) modernitatea eta berritasunarekiko lotura.

Euskara betidanik izan da presente gure lan-jardunean. Debagoieneko hizkuntza-errealitatea lantegietan islatu izan da eta lagun arteko harremanetatik hasi eta bes-telako hartu eman ofizialagoetara, gorabeherak gorabehera, euskara entzun eta ikusi izan da gure kooperatiban. Baina lehenago aipatu dugunez, gaztelania izan da nagusi, eta batzuetan baita hizkuntza bakar ere, gure lanaren adierazpen desberdinetan. Alde honetatik, ezingo dugu esan Euskal Herriko beste enpresa askok bizi izandakotik urruti ibili garenik.

Laurogeigarren hamarkadan egin zen kooperatib(et)an euskara lanera jalgitzeko lehen ahalegin bateratu eta antolatua. Bi mila eta bederatzik honetatik begiratuta, inbidia eta nostalgia nahas lekizkiguke goizero ehunka langilek, lankideak irakasle, euskara eskoletan aritu izana egjatzatzean. Posibilismoak erro sakonak dituen garaiotan, inbidiaz mira gatazka izan mundua erabat euskalduntzea proposatzen zuten orduko dokumentuei eta haiek sortutako atxikimenduei, nostalgiaz begira geniezaioke hura guztia gizartea hobetzeko ekimen zabalago baten baitan bizi izanaren kontzientziari, izan ere, ikastolak sortu, indartu eta zabaltzearekin batera heldu zitzaion lan mundua euskalduntzeari. Baina ez ditugu bata zein bestea, inbidia zein nostalgia, bidelagun hautatu, eta orduan jorratu, egin eta lortutakoa esperientziaren oinarritzat hartzen dugu.

Ez da lantxo honen xedea duela hogeitaka urteetako egitasmoen hausturaren zergatiak xehatzea. Aipa dezagun krisialdi latzak eten zuela ilusioa eta euskara lehen-tasunen artetik desagertu zela. Atzeraldi haren seme-alabak ere bagara.

2.2. Balioak jarraipen

Etzetresna elektrikoez badakigu, eta euskarari zor zaiona berreskuratzeko lan eta ahaleginetan ere esperientzia metatu dugu. Baina hutsune galanta egingo genuke, geure burua, gure kooperatibarena, aurkeztean, mende erdi luze honetan bizi izan ditugunen ardatzean kooperatibismoa erakutsiko ez bagenu. Kooperatibismoa eraiki dugu eta eraikitzen ikasi dugu urteotan, gizartearen nondik norakoek bidegurutze askotara eramán gaituzte eta horietako bakoitzean gure sen eta izaera kooperatiboari eutsi eta ezaugarri eta baldintza berrietara egokitzera jo dugu. Urruti dira auzolanetik gertuko ereduetatik kooperatiba txikiak sortu ziren sasoiak; egun dimentsioz, gaitasunez eta, finean, konplexutasunez handiak gara. Sinistu nahi dugu balioetan ere hazi garela eta hazkunde hori dela gainontzeko gehikuntzen jantzia.

Balioek egin eta babesten bagaituzte, ez da horietan ahulena gizartearekiko eta ingurunearekiko konpromisoa. Gure bailararekiko inplikaziotik abiatuta, egin izan dugu mundu hobearen aldeko ekarpena.

Eta euskararen alde egitea izan dugu gizartearekiko konpromisoa edukiz betetzeko ekinbideetako bat. Euskarak, sortu ginenetik orain arte, gure lantegietan izan duen presentzia aipatu dugu lehentxeago, haren alboan ezarri behar da gure oinarri filosofikoan eta teoriarik euskararen aldeko konpromisoa eta sustapen-lanak bete izan duten tokia.

Balioen eraikuntza, eguneratzea eta praktika dira, beraz, finean, euskararen aldeko jardunaren ernamuina eta hor landatzen da pasa den milurteko azken mendeko azken hamarkadan ia hogeitaz urte lehenago saiatutakoaren lekukoa berriro heltzeko gogoia. Laurogeita hamazortzian jarri ziren abian Euskara Planak. Ezbairik gabe, aurreko puntuan deskribatutako mugimenduaren "oinordeko" direnak. Oraingoan, borondatezko tasuna saihestu barik, ekimenaren sistematizazioa lehenetsi zen eta aholkularitza baten laguntza dugu ordudunik Planon zutabeetako bat.

Esaten ari garena da Emun, Kooperatiba Elkarteak eta Fagor Taldea osatzen dugun zortzi kooperatibetako Euskara Planak batera sortu zirela. Eta, gisa berean, baieztatu dezakegu bata bestea gabe ez dagoela ulertzerik.

Kooperatiben organo nagusi ditugu Kontseilu Errektorea eta Kontseilu Soziala; funtsezkoa behar du bien ala bien erabateko identifikazioa eta inplikazioa halako proiektu baten eta hori lortzea, organoetako kideen engaiamendua bermatzea, izan zen lehen zedarria, kolektiboko langilerik sentsibilizatuenetatik hedatzen hasi zen gogoia, euskaraz lan egin ahal izateko pauso sendoak ematearena, alegia, enpresa-proiektu bilakatzeko.

Hona prozesua, hona joko-zelaiaren irudia: Langilieriaren gogoari (egarria) erantzunez, kooperatibako balioetan naturaltasun osoz txertatzen den proiektu bat (iturria) jarri zen abian 98an. Hasieratik bilatzen da organoen inplikazioa eta zaintza; egitasmo instituzionala nahi da (kooperatibako arduradunek zaindu beharko dute ur-jarioa; haren mantentze-lanak eurei dagozkie, hein handi batean). Emunen aholkularitza dugu hasieratik indargune (lagungarria da iturgin eta ur-bilatzaileen esperientzia baliatzea, baita uraren aprobetxamendurik egokiena aztertzea). Dena bat dator gure ingurunea euskararen normalizazioaren alde egiten ari den lanarekin (gizarteak, edonork, edan dezake gure iturritik).

Artzeren iturri zaharrari ur berria dario. Gure iturri berriari ere bai, eta ez da soilik Debagoieneko mendi zaharren xarma dastatzen bertan edatean, askotariko iturburu-ruen jarioa biltzen baita turrusta freskagarri horretan.

Azkenik, berria eta zaharraren uztartze honetatik tiraka, merezi du berrestea lehenago hirugarren orrialdean iradokitakoa, euskara lanean, lan-tresna gisa, berria den heinean, modernitatearekin ere lotu ohi dela eta gure hizkuntzak erakusten dituen balio erantsien artean irudi modernoarena aitortuenetakoa dela. Gurean ere, beste hainbat esparrutan legez, agerikoa da bikoiztasun eta osagarritasuna: euskarak betikotik eta iritsi berritik du, gaztetik, berritik eta zaharretik, errotik eta adarretik, urrunekotik eta gertukotik, etorri datorrenetik eta egon zegoenetik.

3. EUSKARA PLANAK KOOPERATIBAN

3.1. Ibilbidea

1998an Egosketak, Giza Baliabideen sailak eta Batzorde Exekutiboak urratu zuten bidea. Tamainaz (eta konplexutasunez) ere enpresa handia gara eta horrek hasieratik, sistematizazioa gidari izan nahi genuela gogorarazita, proiektuaren ezarpena, hedapena eta zabalkundea mailaka eta arian-arian egitera eraman gintuen. Hau izan da Euskara Planen zabalkundearen egutegia, bide batez, enpresak zenbat herritan dituen lantegiak ere adierazten duena:

- 1998an Egosketa negozioa (Arrasateko Garagartzako lantegia), Giza Baliabideak (lantegi guztietan) eta Batzorde Exekutiboa (negozioetako gerenteak eta zerbitzuetako zuzendariak).
- 2000n Altzarien negozioa (Oñati) eta Etxetresna txikien negozioa (Eskoriatza).
- 2001ean Estanpazio Zentroa, Ontzi-garbigailuen negozioa (Garagartzan biak) eta Zerbitzu Zentraletako Finantza, Informatika eta Kalitate sailak (Arrasateko San Andres auzoan).
- 2002an Garbiketa (Garagartzan).
- 2003an Hotza (San Andresen).
- 2004an Zerbitzu Zentralak osorik, hau da, falta ziren sailak, Zerbitzu Komertzialak, Komunikazio saila, Erosketa saila, Marketin Estrategikoa eta Idazkaritza Soziala (denak ere San Andresen kokatuta).
- 2005ean Edesa, Konfortaren negozioa, Basauriko lantegia, alegia.
- 2006an Gasteizeko Biltegia, Logistika saila.

Orotara, orduan, lau mila langiletik gora ginen (egun, krisiaren latzak “gerria de-zente mehetu” digu eta hiru milatik behera gara). Bada Euskal Herrian biztanle gutxia-go duen herririk franko.

Bestalde, negozioak aipatzen ditugunean, argitu beharra dago enpresa barruan diren enpresa bezala defini genitzakeela. Izan ere, negozio bakoitzak enpresa bati dagokion egitura osoa du, hau da, bere fabrikazio-, ingeniari-tza, kalitate-eta pertsonal-sailak, esanguratsuenak aipatzearen, bere Negozio Batzordea, departamentuetako buruek eta gerenteak osatzen dutena eta bere Kontseilu Soziala, besteak beste.

Kontuak errazak dira, hamarkadak euskararen erabilera normalizatzeko eta areagotzeko premia sentitzen eta bizitzen, 11 urte Euskara Planei ekin geniola, Euskara Plana kooperatiba osora zabaltzea 8 urte kostatu zaigu eta denok proiektuan murgilduta gaudenetik 3 urte joan dira. Datuon itzalean, bidezkoa da aitopenen bat edo beste: Euskara Planak geure-geureak ditugu, haren aldeko atxikimendua ez bairik gabekoa, horietara iristeko jorratu dugun bidea geure historiarekin bilbatzen dena. Baina, kostatzen da, kostatzen da. Lagunartean esan ohi dugunez, eta kalean ere antzekoak entzun daitezkeelakoan gaude, “euskara lanean jartzeak (zentzu bikoitzean ere har dezakegu) lanak ematen dizkigu”. Teoria eta praktikaren arteko jauziaz besterik ez gabilta, beste behin.

Zehaztapen pareta besterik ez dugu egingo, gorago aipatutako ibilbidearen nondik norakoa hobeto ezagutzen lagun diezagukeelakoan:

Negoziotik negoziorako errealtate soziolinguistikoa desberdina da eta kasurik onenetako elebitasun-tasarik altuenetatik (Oñatiko sukaldeko altzarien negozioan %70etik gorakoa) portzentaje estuagoetaraino (Basauriko konfortaren negozioan %30ekoa) moldatu behar izan dugu gure proiektua, tartean tarteko egoerei ere (Garbiketean, esaterako %60ko elebitasun tasa, hau da, Plana hasterakoan, 700 langile inguru ziren eta %51 euskaraz zekien eta %18k erdizka zekiela aitortzen zuen) erantzunez. Beti ere, kolektibo bakarra osatzen dugula kontuan izanda, negozioetan eta helburuak markatzerakoan eritmo desberdinekin jokatzetik badugu ere, helburu nagusia, gu denon arteko lan harremanari dagokiona, bat bera dela, euskara lan hizkuntza osoa, eskura izatea. Zenbakiek, oraingoan ere, irakurketa bikoitzera garamatzate. Nahikoa euskaldun euskararentzat dauden aukerak profiritatu ahal izateko eta baita euskaraz ez dakien lankide asko, euskara hauei gerturatzea (zentsurik sakonenean) lehenetasunen artean hasieratik emateko. Euskara Plana, egunerokoan, maiz da elebitasunaren kudeaketa egokiaren jarduna edo, areago, sarri-sarri elebidunentzako hizkuntza-kudeaketa egokia izan ohi dugu erronka urteotan.

Oinarri filosofikoaz, errealtate soziolinguistikoaz eta bailara konkretu bateko kooperatibaren bilakaeraz haratago, ezin ahaztuko dugu, proiektu sendo baten bermearen osagaien artean, finantzazioa. Euskara Planak, gehien bat, kooperatibaren Fondo Sozialetatik finantzatu izan dira gaurdaino. Horrek balio izan du ziklo luzeko proiektu bati zor zaion segurtasun testuingurua ehuntzeko. Baina zenbatekoen gestioa bermatzearekin batera, esan beharra dago, finantzazio-iturriak, jatorriak berak, euskararen aldeko jarduna gizarte ekimenean eta ingurunearekiko konpromisoaren testuinguruan kokatzera garamatzala eta ikuspegi horretatik aztertu beharrean jartzen gaituela. Esan gabe doa, planteamendu honek ematen diola Euskara Planari zentzu soziala eta behar duen jarduera-markoa. Gure ustez, argi izan beharra dugu euskara lanean erabiltzeko aukera gauzatzea, egungo langileok gogobetetzeaz gain, datozen belaualdien aldeko ekimena eta gizarteak beste arlo batzuetan aurreratutakoarekin lerrokatzeko mugimendua ere badela. Begi bistakoa egiten zaigu, gizarte-kohesioa ardatz hartuta, hezkuntzan lortu den euskalduntzeak beste hainbestekoa behar duela parean lan munduan.

3.2. Hamaika urte

Bada zerbait; areago euskaraz. Eta hamaika(txo) urteon buruan non gauden eta non geundekeen alderatzea ariketa interesgarria da. Luze joko lukeena baina, eta ez da

lan honen helburu nagusia Euskara Planen balantzea osatzea. Balio beza ondoko zerrendatxoak, hirusta apalak, denbora zertan joan zaigun zuritzeko, urte hauetan egin ditugunen inguruan norbaitzuei sor dakiekeen jakin-mina, hein batean, asetzeko. Hamarkada pasako izerdi guztiak ez dira zereginotan kabitzen, baina zeregin horiek guztiak haien patsetatik iragaziak dira.

Hemen doaz, beraz, errenditu ditugun hiru lan nagusi, etereotik ere eman dezake-tenak lehen begiratuan. Eta kontzeptuaren abstrakzioa leundu guran, ondoan kontra-jarrita, adibide zehatzaren argia.

- **Kontzientzia eta argudioak sendotu ditugu.** Gure kolektiboan (Planak diseina-
tzeko inkesta eta galdetegieta) banaka batek baino ez zeritzon Euskara Planari
denbora galtzea. Gehiengo zabal-zabalak aitortu izan du beti bere burua eus-
kara (gure) lanean normalizatzearen aldeko. Baina arrazonamendu bat ulertu
edo partekatzetik haren aldeko lana egitera edo, lehentxeago, haren aldeko
diskurtsoa egituratzera tartea doa. Heziketalana batzuentzat, sentsibilizazioa
beste batzuentzat, hango eta hemengo aleak eho behar dira ore orekatua nahi
bada. Guretzat, gainera, kontzientzia eta argudioak finkatzea gure enpresa, do-
kumentu honen bigarren atalean, aurkeztean goraiatu ditugun balioetan haztea
da. Euskara gure balioetako bat da, gure hatz-markaren ezaugarrietako bat. Eta
balio honekin ere aktibo eraginkor baten jabe sentitzen gara.

– Egun, tentsioa nagusi den egoeretan ere, inork ez du, dagoeneko, esaten *“tor-
lojuak estutzeko zertarako behar dut nik euskara”*. Horretara, behintzat, iritsi
gara.

- **Eragile sarea errotu da.** Euskara Batzorde, Erabilera Talde eta bestelako eki-
menetako partaide asko izan da urtez urte. Denen artean lankide eredu-garrien
sare hori osatu da, sinesmenetik abiatuta, praktikan oinarrituta, euskararen
aldeko arrazonamendu indartsuen jabe bilakatu direnak.

– Euskarak lanerako balio duela frogatuta dago (hara hor gure hizkuntzari ezartzen
zaizkion proba gehigarrietako bat); izen-abizendunek frogatua ere. Egoerarik gai-
tzenean ere erantzun baliagarria egokitu duen lankidea badugu, euskara erabil-
tzen jakin izan duena. Hala izan beharko ez balu ere hala baita: euskara jakitea
eta euskara erabiltzen jakitea gauza bera izan daitezen ahalegintzen gara.

- **Euskara lanean trebatu da.** Normalizatzek, lanean erabiltzek, esparruak
irabaztetik izan du maiz, lehengo “kontuak” beste hizkuntza/era batera “kon-
tatzen” hasi behar izan dugu, askotxotan, usadio makurrenei aurre egin eta
hartzten. Gero eta balio murriztagoa du euskaraz azaltzeko, egiteko, zailtasuna-
ren estakuruak. Aitzitik, gero eta gehiagotan lotzen dira azalpenik zehatzenak
euskararekin.

– *Probedoriek* hornitzaile bilakatu zaizkigu, ustiapen-kontua zer den ikasi dugu
(beharko ikasi), badakigu, halaber, I+G+b batzen, iradokizunak *sujeentziaren*
balio bera duela eta laguntzaile-bilera taxuz egindako kolaboradorien *erreuniñue*
dela. Euskarak enpresako gaiak oro, teknikoak zein sozialak, zipiztintzen ditu.

Aukera hor dago, erabatekoa izatetik gero eta gertuago, euskararako gonbitea
bete-betekoa da. Ez da, ordea, nahikoa. Gonbiteak erakargarria izan behar du, osoa.
Eta bizkitartean erdaren nagusikeriarekin lehiatu beharra dago.

3.3. Instituzionalizazioa

Aurreko atalaren parte izan zitekeen honakoa ere, izan ere, urte hauetan guztietan zehar Euskara Plana proiektu instituzionala izan dadin saiatu gara biziki. Planaren hel-dutasuna instituzionaltzearen eskutik erdiesten delako konbentzimendutik, aparteko aipu bat eskaini diogu, baina, lan honetan.

Ahalegin edo saiakera horiek aipatzean, euskararen arloko helburuak kooperati-baren gainontzeko arduren artean, enpresako gai-zerrendetan, kokatu beharraz dihar-dugu. Eta hein handi batean lortuta dugu erakundetze hori. Gaia, Euskara Plana, ez da “ahazten”, dagoeneko, (hasiera baten, umorea lagun, euskararena memoriaren kudeaketa egokia besterik ez zela sinistekotan egon ginen, ahanztura kroniko baten aurkako ekimenean genbiltzala barneratzera makurtzekotan) eta “pentsamolde exe-kutiboaren” ordezkari behinenekoei, enpresa orotan baitago enpresan soilik praktika daitekeen filosofia horren jarraitzailerik, gero eta lotsa txikiagoa ematen die euska-ra gainontzeko enpresa-gaien alboan aurkeztea. Behin baino gehiagotan (egia esan, beste gai batzuei gertatzen zaien modu bertsuan) lehenasunen artean txertatu gabe geratzen bada ere, dudatik kanpo dago proiektuaren izaera estrategikoa.

Kooperatibaren organo gorena den Batzar Orokorrean, aldiroko hitzaldi informati-boetan eta kooperatibako organoetan gaia tratatzen da, deskarguak egiten dira, hel-buruen betetzemailaren jarraipenari tartea eskaintzen zaio, diktamenak eta balora-zioak egiten dira, proposamen eta iritziak jaso, gogobetetze-inkestan Euskara Planaz ere galdetzen da. Halakoetan antzeman daiteke gaiaren presentzia eta hari aitortzen zaion prestigioa.

Euskara Planak presente daude enpresako Gestio Planetan eta baita Plan Estrategikoetan; horien parte dira. Eta goiburu gisa Euskararen 2009-2012 Plan Estrategikoan berrikusitako Helburu Estrategikoa, hots, euskarentzat planteatzen dugun xede nagusia: *“Langileek, kooperatibaren arlo guztietan, beren lana euskaraz zein erdaraz egin ahal izateko behar diren baldintzak lortzea. Horretarako, hizkuntzen errespetuan eta gure inguruarekiko konpromisoan oinarrituta, euskararen erabilera garatuko da sistematikoki, bai barne eta baita kanpo harremanetan ere”*.

3.4. Lorpenak eta erronkak

Tentazio batek gida lezake puntu hau laburbiltzeko zeregina. Hots, lantegian ere ezagutzatik erabilerarako koskak sortzen digun egonezina azpimarratzeko grina izan genezake eta “kaleko lege bera” dela lan-harremanen funtsean esanda, oro har, kon-plitu dugula pentsatu.

Lan mundua ez da, ez, salbuespena, euskaldun gizabanakoon eta euskaldungoa-ren joerak eta jarrerak aztertzerakoan. Baina, berez sinplea dena konplexutasunez janzteko inongo intentziorik gabe, errealitatea hankamotz deskribatuko genuke in-dustria arloko enpresa baten ezaugarri propioak, korapilo propioak, eta euskararen normalizazio eta zabalkundean duten eragina azalduko ez bagenu.

Aipa ditzagun, ezaugarri horien berri emate aldera, Euskara Planari dagozkion lan-ketak gauzatzean, ia egunerokoan aintzat hartu beharreko faktoreetako batzuk:

- **Zenbat buru hainbat apuru.** Hizkuntzen kudeaketa egokiak denboraren kudea-keta egokiaren eskutik joan behar du. Garaiotan lan-dedikazio, -programa eta

-kadentzien menpe bizi gara eta euskara ezin da aurkeztu gure laneko erritmoa oztopo gisa. Bikoizketak, errepikapenak eta alferreko biribilletak saihestu behar ditugu; dezente ikasi dugu horretaz. Hala ere, argi gera bedi esandakoa esateak ez garamatzala euskara patxada eta sosegutik aldentzera. Antso Azkarrak, dakigunez, ez zion goitizeneri eutsi lehoinabarraren hankak zituelako, izatekotan, gehienez ere, koinatu lehoibihotza izan zuen.

- **Zenbat helburu hainbat estakuru.** Lehen puntuari darraio gehienetan bigarrenak. Gauza ezaguna dena jakintzat edo nabariegizat jotatuta, sarri aurrerago bideak prestatzeari ekiten diogu abiatzerako balizko estropezei erreparatu gabe. Gero datozkigu buruhaustea aurreikusitako gabeko maratila libratu nahian. Euskara Plana plusa izatea nahi dugu baina ez “gehi” bat, alegia, beste (p)lanak + euskara plana izan beharrean, lanak arintzera, bai altu aldarrikatzeko ordua dugu, lanak arintzera (alaitzera, laguntzera, zentzuz betetzera) datorkigun plana baino. Hau hasieratik sinistu eta kutsatu beharra dago eta hasiera horretara behar bestetan itzuli arrazonamendu honen argiaren bila.

Ozenago esateagatik ez diogu esangura gehiago erantsiko ezta sentimendu hori erreago bihurtuko, baina irrintziak oihartzuna deskubritzeko ere balia daitezke.

- **Zenbat buru, horrenbeste bihotz, seguru.** Lantalde mistoak dira gurean nagusi, euskaradunak eta euskararik gabekoak lan-jardun berean biltzen dituztenak. Garrantzitsua da batzuen eta besteen konbentzimendua, parte-hartzea eta gogobetetzea. Kolektiboaren kohesioa da enpresaren indarguneetako bat. Batasun horren zerbitzura, oparagoa izan ohi da euskara.
- **Zenbat buru, halako bi belarri aiduru.** Txisteak kontatzeko, askok, askotan gaztelaniara jotzen dugu; bileretan suertatzen diren hitzaldi-antzeko horietako bat ematean ere, erdara kultuzat dugunaren makuluarekin eroso sentitu ohi gara. Muturreko bi erregistro horiek gaztelaniak kolonizatu dizkigu, tamaina baten. Euskararen umoreari eta seriotasunari muga eta konplexurik gabe jaregin behar diegu. Euskara Plana euskararen plan anitzen bat besterik ez dela erakutsiz. Esamoldeak gozamoldeak ere badira eta Euskara Planak ezin du jolaserako beta baztertu. Instituzionalizazioaren iruntzia aipatu gabe ezin, beraz, utzi.

Horietan, tamaina baten, datza euskara lanera jalgitzeko plangintzen berezitasuna. Horiek kontuan hartu beharrekoetan ditugu, horiei eta aipatuz doazenei jaramon eginda goaz aurrera. Eta zenbateraino aurreratu dugu? Aitor dezagun, gurean, hastapenetatik, ardura exekutiboak dituztenengan, bereziki, Euskara Planen bilakaera eta emaitzak, aurreratzen ari ginena, alegia, kuantifikatzeko eta neurtzeko ardura izan dela. Horrek adierazle neurgarriak doi definitu, haztapanak zehaztu eta neurketak ondo antolatzea behartu gaitu. Hara hor Euskara Planen aurpegi teknikoena, hizkuntza eta funtzionamendu tekniko erabat errotuta duten erakundeetan, ongi orraztu eta zaindu beharrekoa.

Bihoa datu eta portzentaje langarra Euskara Planen inguruko deskripzioa biribiltze edo osatze aldera. Ez dugu horien interpretazioan eta balorazioan sakonduko, bere hotz-hotzean zenbakiok, orain arte esandakoen ondoan, norainoko hegazkada dugun konprenitzeko erreferentzia baliagarria direlakoan.

ERABILERA

- Erabilera indize orokorra (negozio guztien batez bestekoa) = %26,26
- Negoziokako erabilera indize orokorrik altuena. Egosketa negozioa = %33,55
- Negoziokako erabilera indize orokorrik baxuena. Logistika = %13,81
- Idatzizko indize orokorra = %28,47
- Ahozko indize orokorra = %24,08
- Sormen indize orokorra = %26,40 Esparru konkretuagoetan
- Barne ahozkoa = %28,76
- Barne idatzizkoa = %31,28
- Bilerak = %24,50
- Hornitzaileak = %26,93
- Kanpo Irudia = %30,00
- Lan-tresnak = %26,60
- Prestakuntza = %31,54
- Produktua %6,75

ESKAINZA

- Indize orokorra = %56,84
- Langileentzako eskaintza = %65,76
- Langileak ahozkoan duen eskaintza = %36,31
- Langileak idatzizkoan duen eskaintza = %79,98
- Bezeroentzako eskaintza = %47,93
- Bezeroak ahozkoan duen eskaintza = %75,05
- Bezeroak ahozkoan duen eskaintza = %37,16

Zehaztapentxo bat, datuon balioa argitze aldera. Zenbait indizeri begiratzeko orduan, esaterako, barne idatzizkoari erreparatzean, komeni da gogoan izatea, une honetan, Euskara Planen lana, gurean indize horretan %60ra iristera bideratuta dagoela, hau da, %60 erdiesteak adieraziko liguke gure lan dokumentu eta formatua guztiak ele bietan genituzkeela, euskara letra lodiz nabarmenduta. %100aren urruntasuna leuntzeko balioko al du iruzkinak.

Bestalde, eztabaida luze eta interesgarriaren mamia litzateke datuok beste enpresa eta errealtate batzuetakoekin erkatzea edota horien balio praktikoan azterketan murgiltzea. Gera bedi paragrafo txiki hau kinada bezala, gisa horretako mahainguru edo lana antola dadin.

Duen izenburuari helduta, eta lorpenak (errazegi, apika) zenbakietara errenditu ostean erronkak zerrendatzea izan liteke atal hau orekatzeko moduetako bat. Euskararena erronka bakarra dela esanda ere kita genezake balantzea. Horren orde, Fagor Etxetresna Elektrikoak-en Euskararen 2009ko Gestio Planeko helburuen "bakanketa" adierazgarria izan daitekeelakoan gaude. Helburu eta ekintzok, haien formulazioak eta sailkapenak, zertan ari garen eta norantz apuntatzen dugun islatu beharko lukete.

HELBURU ZEHATZAK	ESTRATEGIAK
ERRONKA: EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA (%35ERA), ERABILERA INFORMALEAN BEREZIKI ERAGINDA	
3.1. Ahozko barne erabilera %2 areagotzea.	<p>3.1.1. Bilerak mapetan jasotako estrategietan sakondu 3.1.2. Euskaldunez osatutako bilerak identifikatu eta eragiteko plana egin.</p> <p>3.1.1.1. Laguntzaile bileretan eta Hobekuntza Taldeetan 3.1.1.2. Hitzaldi informatiboetan 3.1.3. Batzar Orokorre(t)an %50 euskaraz egin interbentzioak ere kontuan izanda. 3.1.4. Kontseilu Sozial eta kontseilutxoetako egoera jaso, organoak berak helburuak ezartzeko.</p> <p>3.1.5. Laneko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko aukerak identifikatu eta lehentasunak markatu. 3.1.5.1. Hasierako Harrera Plana euskaraz eginda emaila eta hartzailea euskaldunak direnean.</p> <p>3.1.5.2. Departamentu barruetako aukerak aztertu eta Plana eginda.</p> <p>3.1.5.3. Departamentu arteko aukerak aztertu eta Plana eginda.</p> <p>3.1.5.4. Erakundetik langilearenganako komunikazioa aztertuta. 3.1.6. Formazioan Taldeko irizpideak aplikatu eta jarraipena sistematizatu.</p> <p>3.1.7. Euskararen erabilera informala areagotu euskaraz egiteko aukera guztiak baliatzeko deia eginda.</p>
3.4. Kanpo irudia eta harremanetan euskararen erabilera %1 areagotzea.	<p>3.4.1. DZ-50000 gida aplikatu bezero eta hornitzaileekiko harremanetan</p> <p>3.4.1.1. Web orri komertziala euskaratzeari ekin. 3.4.1.2. Merkaturatze berrietako eskuliburuak euskaratu. 3.4.1.3. Bermeak euskaratzeko plana egin eta implementatu 3.4.1.4. Katalogoetan aukerak aztertu eta euskaratu. 3.4.1.5. LTZ zentroetan eragiten jarraitu. 3.4.2 Euskal Herriko hornitzaileekin konpromisoak hitzartu ahoz eta idatziz, lehentasunak adostu eta estrategiak bateratuta.</p>
ERRONKA: EUSKARAREN EZAGUTZA %3 IGOTZEA , ZEL ARAUA BETEZ ETA FORMAZIOA ESKAINIZ	
4.1. Euskaraz ez dakitenei ikasteko eta dakitenei beren maila hobetzeko formazioa ematea	<p>4.1.1. ZULen ezagutza areagotzeko ekintzak Hobekuntza Taldeetako helburuetan planteatu. 4.1.2. Euskarazko kompetentziak lortzeko Formazio Plana zehaztu. 4.1.3. Negozio Batzordeetako (eta lanpostu estrategikoetako) kideek gaiak euskaraz garatzeko dituzten premiak identifikatu eta Plana egin. 4.1.4 Mintza eta BerbalagunTaldeak eskaini. 4.1.5. Hiztegi terminologikoa aberasteko plana egin eta implementatu. 4.1.6. E-mailak eta dokumentuak euskaraz idazteko baliabideak eskaini (Azpidazki).</p>
4.2. ZEL araua aplikatu eta horretan sakontzea	<p>4.2.1. Lanpostu estrategiko guztietan horiei dagokien profileko euskaldunak ziurtatu. 4.2.2. Aplikazioaren salbuespenentzako Fagor Taldeko arauaren araberako formazio planak ezarri. 4.2.3. Langileen gaitasunaren eta dagokien lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren artean dagoen aldea neurtu eta horren araberako formazio beharrak zehaztu.</p>

ERRONKA: MOTIBAZIOAN ERAGITEA EUSKARA ERABILTZEKO ETA IKASTEKO LANGILEAK HEZITA	
2.1. Langileak eragile bilakatzea, leialtasuna indartu eta elkarrizketa asimetrikoak bultzatzeko.	2.1.1 Zuzeneko langileak motibatzeke ekintzak antolatu. 2.1.2 Departamentuetako buruak eta tarteko arduradunak beraien jarrerak eta praktikak duen garrantziaz sentsibilizatzeko saio praktikoa egin. 2.1.3 Organoetako kideak Euskara Planari prestigioa emateko mezuak eta bideak landu.
2.4. Erabileraren komunikazioa	2.4.1 Erabilera datuak kolektiboari jakinarazi (klabe edo zentzu motibagarrian)
ERRONKA: LANGILEEN PARTE HARTZEA AREAGOTU ETA EUSKARA PLANAREN JARRAIPENA BERMATZEA NEGOZIO/ZERBITZU GUZTIETAN, ORGANO ETA KOLEKTIBOAREKIKO KOMUNIKAZIOA ZIURTATUTA ETA EPREN ESKULIBURUA APLIKATUTA.	
1.1. Euskara planaren jarraipena ziurtatzea	1.1.1 Euskara enpresaren 1. mailako helburu gisa agertu eta maiztasun jakin batekin jarraipen kuantitatibo eta kualitatiboa egin. 1.1.2 Auditoria sistema ziurtatu eta hobetu. 1.1.3 Euskara plana taldeko negozio/zerbitzu berrietara hedatu, hala badagokio. 1.1.4 Kontseilu Errektoreak eta Kontseilu Sozialak Euskara Planaren jarraipena ziurtatu.
1.2. Eskuliburua aplikatzea eta garatzea	1.2.1 Eskuliburua ezagutaraz 1.2.2 Hazkunde politika aztertu dagozkion hizkuntza irizpideak landuta

Honenbestez, lanaren lehen hiru atalen luze-zabalean, gure Euskara Planen erretratua. Garrantzitsua deritzogu aurrerago, ondoko hiru ataletan garatu dugun esperientzia ongi kokatzea, testuinguru egokian txertatuta.

4. HIRUGARREN MILURTEKOA ESTREINATUZ

4.1. Zenbait ezaugarri

2009ko udazkenean ari gara dokumentu hau atontzen, beraz, milurtekoa urratu genuenetik bidea egiteko astia ere izan dugu. Lehendik sumatzen genituen joera batzuk areagotu egin dira, aldaketak denok bizi ditugu eta enpresok bete-betean bizi dugu aroaren berria. Ez dago sobera garaion ezaugarrietatik osteratzea egitea.

Gure arteko lankide batzuk geure burua analogikotzat dugu. Ez luke honek zentzu izpirik ondoan lankide digitalak ez bagenitu. Hitz egiteko modua besterik ez da, bistakoa dugu, baina bada sakonean horren arrastorik egunerokoan. Teknologia berrien erabilerak lan egiteko modu berriak sortu dituela esanda, ez dugu deus deskubritzen, lan egiteko modu berrietatik haratago, teknologia berriez baliatzeak pentsamolde eta jokabide berriak dakarzkigula antzematen dugula aitortzen badugu ere ez gara urrutiegi iristen ari, baina ezin utziko dugu aipatu gabe, Euskara Planen talaia honetatik,

ohartuta gaudela jendearengana, gutariko askorengana iristeko “formatu digitala”, komunikabidearena zein komunikazioarena (mezuarena) berarena eraginkorra da. Eta Euskara Planaren mezua helaraztea ondo lotu beharreko korapiloa da.

Teknologiaren iraultza batetik eta (barkatuko diguzu, irakurle, figuraren gordina) **iraultzarako gogo eza bestetik**. Esan beharra dago, sasoiak aldatu egin dira, lehenago deskribatu dugun laurogeigarren hamarkadako sentimenduak, borondatezkotasuna eta, erabil dezagun gure artean askotxotan darabilgun berba, militantzia ez dira gaur egun bere horretan. Soziologiaren esparruan urrats larregi egiteko intentziorik gabe, azpimarratu nahiko genuke orduan edota Planak abiatu zirenean eta orain, finean, helburua eta helmuga berbera izanik, asko aldatu direla helburu batekiko aldekatutasuna adierazteko moduak eta baita harekiko inplikazioa gauzatzekoak ere. Balioen eta kausa justuen desakralizazioan, euskara ere bere bide-saria ordaintzen ari da.

Eta hamalagarren orrialderaino eutsi badiogu ere, zaila zen globalizazioa aipatu gabe aurrera egitea. Gure kooperatibak bete-betean bizi duen prozesua da mundualizazioarena. Hornitzaileak, bezeroak, partaideak eta lankideak munduan zehar barreiatuta daude, hartara bultzatzen gaitu gure antolamenduak edo, jatorrian, ekonomiak berak, beraz, helburuak, estrategiak eta lan-dinamika bera globalizatuz ari zaigu urterik urtera. Guk ere korrante horri jarraitzen diogu, globalizazioak garamatza (kontatuko dizuegu nora). Umoreari tartetxoa eskainita, orain problemak ere mundialak ditugula komentatu ohi dugu.

Gurean globalizazioaren izenik ohikoenak nazioartekotzea eta internazionalizazioa dira.

4.2. Nazioartekotzea. Egitura berria

Fagor Etxetresna Elektriakoak-en nazioartekotzea lehenagotik hasita bada ere, Euskal Herriko lantegietan eta haien funtzionamenduan, bertan egiten den lanean, prozesu honen eraginik nabarmenenak eta ondoriorik sakonenak Poloniako Wrozamet eta Frantziako Brandt enpresak geureganatu ondoren bizi izan ditugu. Hurrenkera horretan, 2001ean eta 2005ean erositako enpresekin, etxetresna elektrikoak lehen bost fabrikatzaile europarren artera etorri gara. Erantzukizunen rankinean ere, ezin geure burua beherago aurkeztu.

Erantzukizun horiei erarik egokienean aurre egiteko, bitartekoen optimizazioa eta sinergiak profitatzea ezinbesteko da. Argudio hau, bere soilean, izan da egun ezartzen ari garen antolaketa berriaren iturburu.

Deskribapena modu ulerterrazera ekartzeko, esan dezagun, hasieran, Euskara Planaren hedapenaren berri ematean, aipatu diren negozioak eta horietan oinarritutako antolaketa, urte luzez iraun duena eta sustraitu ere hala sustraitu dena (lankide asko identifikatzen da bere negozioarekin eta elkarrizketetan hala ageri da, “*Garbiketako naiz*”, “*Hotzean nabil lanean*”, edo “*Biltegiakoa dun hori*” esatean) errotti eraldatzea ekarri digula nazioartekotzeak.

Negozio batzuk euren izate eta nortasunari eutsi diote eta, esan dezakegu, horietan “globalizazioaren eztanda” kontrolatuagoa dela. Etxetresna txikien negozioa dugu horren adierazgarri: Shangain joint venturea edo sozietate taldeaniztuna du negozio honek lapikoak ekoizteko, eta horrek, hein batean, markatzen du bere aktibitatea,

langile multzo baten lanharremanetatik asko baitira Txinarekikoak. Hornitzaileen artean ere, sekula baino gehiago, atzerrikoak gailentzen dira eta komertzializatutako etxetresna txikiak ere, orobat, atzerrietatik atzerrietarako bidea egiten dute. Beraz, zeharkako langileetatik gehienek euren lanaren parte adierazgarri bat euskaraz (ezta gaztelaniaz) ez dakiten solaskideekin garatzen dute. Euskararen laneko aukeren porzentajea murriztu egin du, lehen kolpetik, globalizazioak. Langa beherago ikusten dugu baina, paragrafo hasieran iradoki legez, pertzepzioa, eragindako langileongan, ez da internazionalizazioak euskararen garapena eragozten duenarena. Une honetan Eskoriatzako gure lantegian ez da nazioartekotzea interferentzia gisa interpretatzen. Inoiz inon globalizazio indizerik ezarri den jakin gabe, ausartzen gara, gure esperientzia lekuko, baieztatza, eskala horretan, globalizazioaren mailarik txikiena egiten zaigun horretan, ez dagoela haren eta euskalduntzearen arteko bateraezintasunik.

Wrozamet eta Brandt aipatu ditugu eta enpresa horiekin eta dagozkien markekin batera goaz eta gabiltza, kooperatibaren bizkar hezurra (langileon gehiengo) izan den Linea Zuriko produktuen ekoizpenari dagokionean. Bestelakoak dira hemen kontuak.

Linea Zuriko produktuen fabrikaziorako bi planta ditugu Euskal Herrian, Arrasateko Garagartzako auzokoa (labeak, sukaldeko plakak, garbigailuak, lehorgailuak eta ontzigarbigailuak lituzke produkturik ekoiztzenak) eta San Andres auzokoa (hozkailu eta izozkailuak). Frantzian beste lau lantegi, La Roche/Aizenay, Lyon, Orleans eta Vendomen, Italian Verolanuovakoa eta Polonian Wroclawekoa. Lantegi kopuruak, printzipioz, bestelakorik pentsatzera eraman bagintzakeen ere, zehaztu beharra dago langile kopuru bertsua garelako Euskal Herrikoak eta gainontzeko herrialdeetakoak batera.

Zortzi lantegion koordinazioa izan da nazioartekotzeak ezarri digun lehen proba, eta premia horren erantzuna hilabeteotan egituratzen ari garen antolaketa berria. Hona organigramaren zertzelada nagusiak: Herrialde bakoitzak, Euskal Herriak, Frantziak (Verolanuova bere baitan) eta Poloniak bere enpresa-area du, herrialde horretan fabrikatzen diren produktu guztiei, fabrikazioei, dagokiena, honaino berririk ez. Baina, berrikuntzaren muina honek dakar, Egoketak, Hotzak eta Garbiketak, I+G, produktuaren marketina, garapen elektronikoa eta kalitatea kudeatzen dituen nazioarteko sail bana dute. Hau da, Egoketaren I+G sailak, adibidez, hiru herrialdeon ardura du eta harantzagoko, hango eta hemengo ikerketak eta garapenak, ikerketa eta garapen bakarrera bildu behar ditu. Zeharkako egitura honek (oharkabea, transbertsalitatean aditu bihurtu behar izan dugu) helburuak, lan-metodoak, etxetresnak, jakina, eta ideiak globalizatzen ditu. Egunetik egunera. Baina koskaren koxka ere hor dago. Hizkuntzak globalizatzen ari zaizkigu edo globalizazioa horietako batzuk, horietako gurea, bazterrean uztera dator?

Aipatutakoez gain departamentu korporatiboak eta marketin estrategikoa ere badira, batzuek zein bestea, mundu mailan antolatuta. Antolamendu honen lotura funtzionalak eta hierarkikoak herriartekoak dira eta, lorpenen eta erronken puntuan lantalde mistoak aipatu baditugu, orain mistoagoez ere jardun gaitzake. Denbora txikian ugaldutako egin dira poloniarrez, frantsesez eta euskaldunetara osatutako lantaldeak. Gehitu diezaiogun koadroari aurrerago aintzat hartutako denboraren kudeaketa ego-kia eta hasi zaizkigu komerziak, hortik datozkigu Euskara Planaren estatusun berriak.

Beraz, langile gero eta gehiagok jaso eta ematen du euskara ez diren hizkuntzetan. Eta askorengan lehen inpresioa da kontroletik kanpo dugula hizkuntzen kudeaketa, hizkuntzen gestioa eta lehenespena kanpotik markatuta datorkigun aferara dela eta beste hizkuntza horien oldarra urteotan euskararen alde egindako lana desitxuratzea datorrela. Beste eraso baten pertzepzioa. Lehenago erabilitako esamoldeari helduta, globalizazioaren eskalan gora egin ahala ezintasun sintomak antzeman dira gurean. Etxea gobernatzen gutziz ikasi aurretik mundua gobernatzen jarri behar gure burua.

Internazionalizazioak egitura eta antolamendua aldatu digu eta baita hizkuntzen arteko lotura eta harremanak. Bada beste datu adierazgarri bat ere. Orain, ia gehienetan, Fagor Group da lan-eragiketaren subjektua. Hori da gure izen berria, izanetik ere baduena.

4.2.1. Euskararen globalizazioa

Izenburua onetsiz gero, euskara globalizatzen ari zaigula/garela kontatu beharko. Ez dugu honetan aitzindaritzarik aldarrikatuko baina, ingurua behatuta, ezin esango dugu antzeko zidorretan zaildutako bidaide asko topatzen dugunik. Konta dezagun bada sentitzen duguna, saia gaitezen bizitzen ari garena zor zaizkion definizioekin janzten.

Euskara globalizatzen ari dela diogunean, lehiakide berriekin ageri zaigula esan nahi dugu gehienetan. Hizkuntza gehiagoren artean hautatu behar izango dugula aurrerantzean. Eta horien artean, aitor dezagun, lehenbailehen, bat nabarmentzen da besteen gainetik: Ingelesa.

Eta Euskara Planaren historiak, gurean, gaztelaniari berreskuraturako guneen historiatik ere dezente duenez, orain dikotomia hori, buruz buruko dema hori, hausten hasia zaigu. Honetaz jabetuta, gairitu dugu, hein handi batean, hasierako estura hura. Haustura hori emankorra ere izan daitekeela sumatzen hasiak gara.

Gaia aztertzen dugunean bi alderdi ere bereiztu izan ditugu gure hizkuntzaren globalizazio honetan: batetik, etxean bertan, gure lantegietan, beste hizkuntzen (ingeleza, frantsesa eta poloniera, batik bat) presentzia ugaltu egin da, beraz, testuingurua, lehenagoko bitasun hori, aldatzen ari da. Eta, bestetik, euskarari "nazio artean ibiltzeko" aukerak sortzen zaizkio eta hortik eztabaida interesgarri eta mamitsuak datozkigu mahai gainera, galdera berriak formulatu izan dira Euskara Planetan. Zein da euskararen efektua eta tokia hemendik Poloniara doazen mezuetan? Badu zentzurik euskara Frantziako lantegietako errotuluetan jartzeak? Hizkuntzaren erabilerak eta presentziak mezuz zehatza garraiatzeaz gain bestelako jarrerak eta, funtsean, baliok transmititzeko baliatu ahal ditugu. Nola bideratu transmisio hori? eta Zein balio erantsi eta zein erantsi euskarari? dira inarosten gaituzten galderak. Horien lanketan dihardugu.

Bada, honen guztiaren erdian, antzematen dugun beste aldaketa bat ere. Etxetresna elektrikoak diseinatu eta muntatzeko askotarikoa da sortzen den terminologia, aldiro-aldiro izendatu beharra dago osagai eta pieza berriak. Terminologia sortzeko (eta erabiltzeko) guneak ere badira gurea bezalako enpresak, eta terminologia horretan ingelesak berebiziko indarra hartu du, azken urteotan, mailegu-iturri gisa. Hala ere, ez dugu gai honetan kokatzen Euskara Planen kezka, ingelesetik datorren

mailegu berrien langar hori ez dugu gure hizkuntzaren higatze gisa bizi. Ez zaigu, uneotan, hori hizkuntzaren garapena eragotziko duen faktorea iruditzen.

Gure Euskara Planetako sentsazioak eta esperientziak kontatzeari lotuko gaizkiola esan dugu eta, horren harira, azken aitortpena euskararen globalizazioarena izan da. Laburbiltze aldera, euskararen normalizaziorako eszenatokia aldatu egin dela esan dezakegu. Aldaketa sakon honen aurrean, batetik, bertigo batzuk azaldu zaizkigu, bukatu gabeko lan bati beste bat gehitu “diguten” sentsazioa, baina, bestetik, aukera eta erabilera berriak ikusten ditugu etorkizunean, gure lankide baten hitzetan, “**gure hizkuntza kontuen puntu endogamiko hori gainditzeko parada ezin hobea**”.

Eta aukera horiek aprobetxatzeko lana abian da. Kasuistika askotarikoa biltzen da gure Euskara Batzordeetako lanketetan, euskararen kontestualizazio berri honetan esparruak mugatu behar dira, erabilera-fluxuak eta erabilera motak sailkatzea lagungarria gertatzen ari zaigu, gero, lehenetsunak zehaztu, adostu eta, finean, aplikatu. Esana dago, hizkuntza kudeatzeko irizpideak tresna oso baliagarriak izango dira. Gu, une honetan, zehazte-adoste horri dagozkion eztabaidetan gaude.

5. EGUNEROKO LANAREN LANAK

5.1. Internazionalizazioaren eragina hizkuntzen kudeaketan. Zenbait adibide

Eszenatokia aldatu da. Baita eszenak ere. Hona horietako batzuk, edozein egunetan, gure enpresan gerta daitezkeenak. Eta ondotoxoan eragindako emozioetako batzuk.

- Lyonetik Thierryk gure lantegi guztietan (ia ordenagailu guztietan) zabalduko den emaila bidali du. Eskatu ere informazio hori mundu guztiari jakinaraz dakiola eskatzen du. Mezua, hurrenez hurren, polonieraz, espainieraz, ingelesez eta frantsesez dator.
 - Ezin ukatuko diogu egindako esfortzua.
 - Bat faltan eta gure hizkuntza izan behar mezutik “erori dena”. Beste behin. Prestigio kontua edo memoria kontua ote? Edo informazio falta? Norbaitek esango zion, ba, hemen beste (lan)hizkuntza bat ere badela?
 - Ahalegina ez da makala, baina, 4-5 hizkuntzetara moldatzeko gaitasunik, astirik eta bitartekorik badugu?
 - Egia da, hizkuntza guztietan jardungo bagenu denok pozik. Baina ez al da astuntxo jardunbide hori?
 - Eta, gainera, oraintxe oharatu gara, ingelesa norentzat dago hor?
 - Oraintsu arte zabalkunde handiko mezuak euskara zeta gaztelaniaz jasotzen genituen. Orain ez dago irizpide hori errespetatu beharrik? Frantsesei ez zaie aplikatzen?
 - Hasierako lekuan gaude, edo?
- Isabellek ere badaki Orleansetik zabalkunde handiko mezuak bidaltzen. Lerrorik idatzi gabe, dokumentu bi txertatu dizkio emailari. Bata frantsesez, bestea, berbera, ingelesez.
 - Honek badaki zer bait, bereari eutsi eta gainontzekoontzat, eutsi!

- Ba guk ere berdin egin beharko dugu. Gurea eta ingelesa, eta kito.
- Gurea, zein?
- Tira, norbait arduratu beharko da mezuok iragazi eta euskaratzeaz.
- Mezuzaina, horixe baino ez genuen behar.
- Maitanek inoiz aitortu du erdiko kaletik paseatzea gustuko duela. Hori da egin duena, erdiko kaletik tiratu eta, mezua denoi ingelesez bidali.
 - Komeni zaidana ulertu dudalakoan nago.
 - Hainbeste komeria eta aitzakia euskaraz ez idazteko, bateko, h non jarri behar den ez dakigula, besteko, lotsatu egiten garela eta ingelesez hor gabiltza, ostiko baten, baina zera baino harroago.
 - Nik ulertzen dut norberarena den zerbaitetan, euskara erakustean, alegia, lotsa sentitzea zuzen eta artez ez gabiltzanean eta ingelesez, aldiz, lasaiago maneiatzea hanka-sartzeak. Ez da gauza, hizkuntza, bera. Euskara geure sentitzen dugu.
 - Ba, ez dago zer esan handirik. “Kiski guztia” ingelesa ikastera!
- Garbiketakoek zenbait formatu lehen zeuden bezala, euskaraz eta gaztelaniaz, erabiltzen dituzte eta hala iristen omen dira Poloniara. Ez ei du arazorik sortzen eta ondo moldatzen direla diote.
 - Ah, baina han, tartean, bada euskaldun bat, ez? Horrelako bana bagenu gainontzeko lantegietan ere, ederra litzateke.
 - ...!/? ... Hasi da ingeles-prestakuntza. Antolatu dira ikasturterako ikastaroak.
 - Hori da jende pila hasi dena.
 - Egarrri bera bagenu euskararako! Euskarara biltzeko hainbeste koplak eta ingelesera denok lehen txistua jo orduko...
 - Baina ingelesik gabe ezin ditugu lan batzuk aurrera atera. Eta aitortu behar da, euskararik gabe...
- Egosketako Negozio Batzordera frantsesak etorriko dira aurrerantzean.
 - Akabo gai batzuk euskaraz egitearena, ez?
 - Eta Euskara Planaren deskargua. Badu zentzurik frantsesei egiteak?
 - Aipatu beharko diegu zertan gabiltzan.
 - Ulertuko al dute ezer?
 - BAGIRA?

Pausoz pauso. Harreman (mota) berriak sortu dira gure lanetan. Harreman horiek kuantitatiboki esanguratsuak dira, lankide askori eragiten diote, alegia. Orain arte definitu, erroto eta erabili ditugun irizpideetatik ihes egiten digutela iruditzen zaigu. Bestela adierazita, ez ditugu gure hizkuntza irizpideak errealitate honetarako erai-ki. **Irizpideak aldatzeko premia baino haiek osatu beharra da sentimendu nagusia.** Irizpideok testuinguru berrian aplikatzeko edo uztartzeko zailtasunek zalantzak areagotu dizkigute. Egia esan, bitxia ere suertatzen da lehenago planteatu ere egiten zirenak orain dudaren erdi-erdian egotea. Esaterako, azken urteotan euskara hutseko komunikazioak zenbait zirkuitu eta esparrutan indartu badira ere, jakinarazpen eta

ohar ofizialak, bazkide guztioi helarazi beharrekoak, euskaraz eta gaztelaniaz zabaldu izan dira eta ez da hori kuestionatu. Kolektiboan dugun ezagutza izanda, gaztelaniaren makulua behar-beharrezkotzat jo da. Orain badira ahotsak zenbait kasutan euskara eta ingelesa nahikoa liratekeela diotenak, eta beste batzuek komunikazio pertsonalatuagoetara jauzi egiteko garai dela planteatzen dute. Era berean, oharu gara harro erakusten diegula euskara beste herrialdeetako lankideei, areago, burutik pasatu zaigula, dagoeneko, euskara ikasteko gonbitea egitea. Beraz, zalantzok aberasgarritik gehiago dakarkigute desorientaziotik baino.

Baina, nonbait aipatu dugu, garaion ezaugarria da lastertasuna eta errealtatea aurretik bizkor doakigu. Esan nahi dugu zalantzetatik erneko direla erantzunak eta gaiari bueltaka gabiltzala 2009 honetan, besteak beste, Euskararen 2009ko Gestio Planean, nazioartekotzerako hizkuntza irizpideak lantzea aurreikusi genuelako. Eta bueltaka gabiltzkie bitartean, erantzun bila, lanak bete behar dira eta egunero-koari ere erantzun behar zaio. Irizpide finkorik ez dugunez inprobisazioa da nagusi. Pertsona berak erabilera desberdinak jorratzen ditu, egoerez dituen pertzepzio desberdinetaz gidatuta. Bitxia suertatzen da, aztertu ondoren, hizkuntzaosaketa bertsua luketen egoera bezala agertu direnetan, nola komunikatzaile berdinak jorkaera /jarrera desberdinez baliatu den ikustea. **Inprobisazioaren erabilera** ez da berez kaltegarria, aitzitik, inprobisatzeko gaitasuna duenak badu eskura bitarteko baliotsua. Eta ikusten dugu inprobisatzen jakitea onuragarria zaigula harreman aldakorren anabatasxo honetan, areago, maiz, solaskideen hizkuntzak zeintzuk diren ez dakigula abiatzen garenean. Baina, beti uztea hizkuntza-hautua inprobisazioaren mende ez zaigu errentagarria. **Erabileraren inprobisazioa ezin dugu harremanen ardatz hartu**. Zergatia ere zor zaio baieztapen (edo ezeztapena da?) honi. Belarriek eta irakurketek egiten dute landa-lana. Azken bi urteotan askotxo inprobisatu behar izan dugu eta entzun eta ikusitakoak diosku, tartean diren hizkuntza guztietarik, “euskara dela gehien desagertzen dena inprobisazioaren erresuman”. Uste dugu honen arrazoa parekotasun falta dela, hau hizkuntzak ez direla abiapuntu eta baldintza desberdinetan abiatzen lehia berri honetan. Horixe da, ba, ateratzen dugun ondorioetako bat, euskarak, irizpiderik definitu ezean beste hizkuntzek baino arrisku gehiago duela, une jakin batzuetan (bizitza une jakin batzuen segida besterik ez da) mezu eta komunikazioetatik “deskolgatzeko”.

Parekotasuna aipatu dugu eta hura aldarrikatzera egin behar dugu. Hizkuntzak guztiak parekoak dira baina erabilera-aukera desberdinek hausten dute parekotasun hori. Aukera parekotasuna lortzeko bidean prestigioa lantzeari funtsezkoa deritzogu. Nork ez du inoiz entzun urlia aplikazio informatikoren ingelesezko bertsioa dela fida-garriena. Guk askotan entzun dugu euskarazko bertsioa apalxeago doala, akatsen bat edo beste duela, erabili, erabiliko genukeela, baldin eta ez dakit zein bateraezintasun duela susmatuko ez bagenu... Prestigioaz ari gara. Eta nazioartekotze honetan euskarari prestigioa emateko parada ezin hobea dugu.

Aurrerago ere egin diogu erreferentzia hizkuntzak eta hizkuntzen erabilerak balioak transmititzean duten garrantziari. Hizkuntza bat erakustea edo ez balio batzuk transmititzea da, erakusteko modua, beste hainbeste. Hortik biribildu nahi dugu diskurtsoa, euskara plaza berrian aurkezten lagunduko digun diskurtsoa. Euskararen alde egin dugun bideak euskara trebatzeko balio izan du, trebatze horrek nahikoa konfiantza ematen digu euskararen eskutik ibiltzeko, konfiantza hori hedatzea pres-

tigioa indartzeko moduetako bat besterik ez da eta, bidenabar, lehiaren pertzepzioa bizi duten hiztunengan ager litekeen frustrazioa (beste borroka bat?) deuseztatzeko antidotorik onena.

Garrantzia aitortzen diogu diskurtso bat egituratzeari eta argudio-sorta eskura izateari. Hor ezarri nahi dugu praktika eredugarriaren oinarri sendoa.

5.2. Zer egin eta nola kontsola

Inprobisatzen ibili gara zerbait itzurtzen ari zitzaiquila sumatu artean. Eskemaren batzuk berrikusi beharra onartzera eraman gaitu susmo horrek. Eta hortik jarri dugu abian nazioartekotze-irizpideak (hizkuntza irizpideak, noski) lantzeko prozesua. Kasuak, kekek eta arrazoiak biltzea izanda lanketaren lehen lanetariko bat, aukerak zerrendatu eta, kasuren baten, (berr)asmatzea haren jarraipena eta, urte bukaera honetan, esan dezakegu aukera horietatik lehenetsitakoak aurkezten ari garela.

Prozesua gauzatu ahala aholkuak emateko gaitasuna ere geureganatuz joan gara. Gaiak ikasi ahala. Eta eztabaida prozesuetan, gehien bat, Euskara Batzordeetan, jasotako ekarpenekin jantziz joan gara eta hortik gaiaren inguruko mezu positiboak zabaltzeari ekin diogu.

Mezu positiboarena azpimarratzen dugu, egia delako une batzuetan ingelesaren, batik bat, eta beste hizkuntzen etorrera gehiegizko erauntsi bezala nozitu izan delako. Ber gisan, azpimarratu nahi dugu sentsazio hori atertzen hasita dagoela eta gaiak arazotik duenari buelta ematen ari gaitzaizkiola.

Bidezkoa da elkarri eman dizkiogun aholkuak, animuak hemen ere azaltzea. Horretara goaz hurrengo lerrootan.

- Euskararena, gure hizkuntza bere goren gradura ekartzearena, denbora luzeko egitasmoa dela badakigu, Euskara Planen esperientziatik. Internazionalizazioarena beste proba bat da, baina, edonola ere, aurrekoa berrestera datorrena. Beraz, presarik ez, urrats sendoak bai, ekidin dezagun hizkuntza-estresa, eta kutsa dezagun euskarak neolitoetik hona bereganatu duen sosegu guztia.
- Hizkuntza minorizatu eta minoritarioen talaiatik ikuspegi ederra dago. Espeientzia zabala dugu inperio eta erresuma handien hizkuntzen itzala gardentzerakoan. Funtsean, senak esaten digu halako aferetan jardunak garela. Beraz, entrenamendu faltagatik, behintzat ez da izango.
- Euskara endemikoa ere bada, mundua bera bezala, azken finean. Nabarmena da gure hizkuntzak berezi, berezien artean bereziago, bilakatzen gaituela, estandar askotatik, egungo gizartearen irudi-patroirik ohikoenetatik kanpo gertzen diren loturak eskaintzen dizkigula. Eta hori erakargarria ere bada. Kultura fusioan, guri gure lanetik dagokigunean, behintzat, ezinbestekoa da euskara aurkeztea eta, zentzurik zabalenen, erakustea. Euskara ere bada gure irudiaren eta pentsamoldearen berrikuntza. Konpartitu beharrekoa. Paradoxikoa ere bai: zaharrena berritzaileena.
- Hizkuntzen sosegua eta harrotasuna, hizkuntzen estresa eta arrotzasunari aurre egiteko. Hizkuntzen umorea hizkuntzen lehia leuntzeko. Honatx anekdota: gure zuzendarietako batek, bilera jendetsu baten euskaraz irakurtzen ari zela,

hitz berean egin zuen behin eta berriro estropezu eta irtenbidea aipatu beharrean, han aritu zen interbidea gora eta interbidea behera. Eta Euskara Planetan ondorioztatu genuen, agian, gehiegi tematzen garela irtenbidearen bila eta interbideetatik ere uzta oparoa izan litekeela.

- Guretzat nahi duguna besteei ere zor diegu. Sekula baino argiago ikusten dugu euskararentzat irizpideak lantzeak gainontzeko hizkuntzekiko tratua arautzera garamatzala. Jasangarritasunaren kudeaketa hizkuntzetara aplikatu beharrean gaude. Hizkuntzen ekologiarekin topo egin berri dugu.
- Funtsean, oraindik ozenegei esaten ausartzen ez bagara ere, globalizazioari esker normalizatuago izatera iritsi gaitzkeela pentsatzeari ekin diogu. Baina, buelta lehen aholkura eta, horrekin batera, gogora dezagun Euskara Planen ezarpenaren iraupena. Beraz, pentsatzen hastetik iristerako aldea ez dezagun gutxietsi.

6. IHINTZ TEORIKOA

6.1. Hizkuntzen ekologia

Aurreko atalean eginda dago erreferentzia. Nazioartekotzerako hizkuntza irizpideak lantzean ezin da saihestu gainontzeko hizkuntzei eman beharreko tratamendua. **Tratamendu horrek zer ikusi zuzena izango du gure hizkuntzak jaso lezakeen trat(a-mend)uarekin.** Euskara Planetik Hizkuntza Planerako urratsa egin beharra planteatu izan dugu. Aitortu beharra dugu, kontsiderazioa mahai gainean badugu ere, ez dugula, momentuz halako erabakirik hartu. Euskara Planen egitura, Euskara Batzordeak eta hauen inguruko eragileak, euskararen eskubideak eta premiak asetzeko lanetan iaioak, Euskara Planaren sustapenaren eta aurrerapenaren erantzule nagusiak, beste ardura hori beren gain hartu beharko luketen ez dugu argi. Batzorde berriak eratu beharko genituzke? Beste hizkuntzen ardura eta zaintzarako behar bezain prestatuak geundeke? Maratila horietan ditugu eskuak uneotan.

Edonola ere, hizkuntza-ekologiaren kontzeptualizazioa beharko dugun lan-tresna da. Eta gure euskalzaletasuna, gure euskaltasuna, kontzeptu horiekin hornitu eta hazi behar dugula ikusten ari gara. Hor dugu, beraz, erronka interesgarria **hizkuntza-ekologia euskararen normalizatorako erabili ohi dugun argudio-sortarekin, eza-gutzarekin, uztartzea.** Argi dago lehena soilago dugula, informazio urria iritsi izan zaigula horretaz, eta bigarrenean usuago gaztigatuak garela eta horretaz leziotxoren bat ematen ere ausartzen garela. Prestakuntza behar dugu, gure oinarri teorikoa sendotzeko premia dugu Euskara Planetan aurrera indartsu jarraitzeko.

Lehenago ere, urteotan jo izan dugu soziolinguistikaren iturrira gure praktikak zuzendu eta sendotzeko. Euskara teknikarien bidez jaso izan dugu, esaterako, minorizatu eta minoritarioaren arteko diferentziaren berri edota hizkuntzak ikasteko ibilbide naturalaren eta kulturalaren berri. Eta horrek euskararen aldeko egitasmoan “zutabe arrazionala” berreraikitzeke balio izan digu. Izan ere, orain arte bezala, ezinbestekoak izango zaizkigu sentimenduaren eta arrazoiaren (biak ala biak adierazteko ere bada hizkuntza) garapenak hizkuntzaren garapena bermatzeko.

6.2. Ondorioetarako apunteak. Ekarpinak ekarri ezinik

Ez gaitzala larritu atalaren izenburuaren bigarren baieztapenak. Ekarpinak une honetan ezin ditugula ekarri diogunean une honetan ez dugula tesirik (uler bekigu, etxera-ko tesirik) mamitu esan nahi dugu, intuizioaren planoan mugitzen garela behin baino gehiagotan. Horregatik ondorioetarako apunteak dira honaino kontatutako bizipenon behin-behineko emaitza. Beude, behin-behineko eta bat-batekoan.

- Nazioartekotze-prozesu bizi baten erdian dagoen gure Euskara Plana sendotzeko bi premia nagusi identifikatu ditugu.
 - Jarraibide lagungarriak behar ditugu. Hizkuntza irizpideak errealitate berrira moldatu behar ditugu. Eta errealitatearen malgutasuna irizpideen ezaugarria ere izan behar da.
 - Ekolinguistika mundua eta hizkuntza(ar)en arteko interakzioen zientzia bezala definitu izan da. Elkarreragin horiez dugun ezagutza eta jakintzan sendotu behar dugu. Bizi(ko) dugun kultura fusiorako prestatzen hasi behar dugu. Balio berrien transmisioa eta zabalkundea egiteke dugu, hein handi batean.
- Bigarren premia hau estuki lotuta ageri zaigu errealitate berria kudeatzeko beharko ditugun bitartekoen azterketarekin. Batik bat, giza baliabideekin. Argi dago hizkuntzen kudeaketa egokiak eragindako guztien inplikazioa bilatu behar duela, baina lehen puntuko premiei erantzutearekin batera, prozesua, “hizkuntza-kudeaketa ekologikoaren ezarpena” gidatuko duten lankideen profila definitzea oso lagungarria izango da.
- Lankideren batek, dagoeneko, bereizi ditu bere jarduera-hizkuntza eta lan-hizkuntza. Bigarrenak dena du haututik, sarritan, itzartzetik, lehenak dezente hitzartzetik. Ez dugu argi ikusten bataren eta bestearen arteko muga, baina lankideak norabide bat seinalatzen du eta arakatzea dagokigula uste dugu.
- Ez dugu bakarrik egon nahi. Gainera ez zaigu komeni. Gure kooperatiban bizi ditugunak beste langile batzuenekin alderatu eta partekatu nahi ditugu. Hizkuntzak eta hizkuntzen ingurukoak partekatu nahi ditugu. Idatzi hau bada horren lekuko. Eta aro globalean, konponbideek ere globalak izan beharko dutelakoan gaude. Enpresa baten gaitza da hizkuntzen arteko parekotasuna eta anibalentzia aldarrikatzea hezkuntza-sistema ingelesaren noranahikotasuna goratzera bideratuta dagoenean. Badago hor, salaketarekin batera, elkarlanerako dei bat.

Batzuetan ingeles dakiten lankide euskaldunak beharko genituzkeela esatera etorri gara. Urliak ingeles euskaldunak ere onartuko genituzkeela egin digu arrapostu. Tokian tokiko hiztun bilakatu behar dugula euskaldunok sententziatu du sendiak. Ateraldiak ateraldi, eleaniztasuna dago jokoan. Eleaniztasuna da joko. Baina horretaz ohartu orduko, ikusten dugu eleaniztasunetik eleaniztasunera aldea dagoela.
- Aspalditxo entzun genuen gure Euskara Planak notizia ona zirela euskararentzat. Eta sinistu dugu; ezinbestean gairiditu beharrekoa dugu lan-mundua euskaldun-tzearena. Ausartegitaz jo gaitzakezuen arriskuari ezikusiarrena eginez, botako dugu puntu horren jarraipena: Notizia ona izango da lan-munduarentzat, munduko lan-munduarentzat, hizkuntzak egoki tratatzen hastea, hiztunak baikara langi-

leak. Lan-harremanak hobetzeko klabe txiki bat hor dago. Hizkuntzei erreparoa jartzetik hizkuntzei erreparatzera pasatu behar dugu.

- Euskara batuak izan da gure hizkuntzaren historia eta bilakaeran inflexio-puntu garrantzitsuenetako bat. Euskara Planek ere izan dute (eta badute) hura fin-katzeko lanetan parte-hartzerik. Interes handiz bizi ditugu euskara teknologia berrietara, haien erabilerara, egokitzeko “mugimenduak”. Euskara trinkoaren jaiotza esan du bat edo batek Emailen eta SMSen aroan teknologiekiko egokitzapen horretan irabazle ateratzen diren hizkuntzek abantaila izango dute. Beraz, gustatuko litzaziguke euskara batutik euskara trinkorakoan ekarpenen bat egitea.
- Teknologia berrien aipamenaren lizentzian, bihoa beste aitorten bat. Agian, gehiegizko zirrara sortzen digu, baina euskararako aldi bereko itzultzaile automatikoak ate asko irekiko dizkigulakoan gaude. Baliabide baliotsu eta erabilerraza aurreikusten dugu. Zain gaitu.
- Nazioartekotze honek, dokumentu honetan luzatzeko aitzakia eman digunak, aukera berriak sortzen ditu egunetik egunera. Hori lehen ere aipatu dugu. Eta gure artean, orain ere intuizioa bidaide, hizkuntzak nahastearen aukera ere aurreikusten da, kreolera berriak sortzearen inguruan bada lan interesgarrietarako eremua. Euskaldunok badakigu pidgina zer den. Berbinga iristear ote.
- Emozio berezia sentitzen dugu beste herrialde batzuetatik iritsi dakigukeen informazioa, mezuak, euskaraz ere etor daitezkeela aurreikustean. Izan ere, komunikazioen ardura duten zenbait lankide estrategiko poloniar eta frantsesen konplizitatea eta adostasuna lortuta, posible ikusten dugu haiek gure laguntzarekin dokumentuak euskaraz ere zabaltzea. Bide hori ere jorratzen ari gara.
- Balioen baloreaz jardun dugu aurrerago. Horiei jaramonik egin gabe nekez egingo dugula aurrera badakigu. Baina, balioen aldaketaz gain, hizkuntzen nazioartekotze eta globalizazio honek estetika berri bat ere badakarkigula bizi dugu. Eta estetika horretan euskara osagai garrantzitsua izatea espero dugu. Badu horretarako grinarik gure hizkuntzak.

6.3. Etorkizunetako bat

Botoia sakatuta testua euskaraz ageri da.

Mezua euskaratik berera itzuli nahi duenak klik egitea aski du.

Ahotsaren kudeaketa oztopo handia zen garaia urruti ikusten ditugu. Ematen du bideokonferentziak betidanik azpitolatu direla, betikoa dela azpitoluen hizkuntza hautatzeko aukera.

Gure alaba eta koadrilakoak arabieraz euskaraz bezain ongi moldatuta ere, orain kitxuaren modarekin dabilta eta kitxuaz idazten diote elkarri.

Ikaragarria da nola berpiztu den zuberera azken boladan, euskalklik eta euskalklip guztiak kutsatzen ari da, baita doinutan ere.

Estutxo nabil errumanierako klaseekin, izan ere, lankideen artean korotxo bat, abesbatza txiki bat, antolatu dugu eta okzitanierazko abestiekin gabiltzanetik sinistu ezineraino luzatzen zaizkigu entseguak.

Aurki euskara-poloniera-berbera hiztegitxo bat banatuko dugu lantaldeetan.

Aurtengo Eguberrietan “Zorionak” argitxo-mezua zelan erakutsi erabaki ezinik gabiltza. Batzuk garifuna jartzearen alde, hizkuntza horretako lankideei keinu egite aldera, besteak zirilikoz idazten den hizkuntzaren baten. Eta tartean alferreko gastua eta energia xahutzea dela diotenak.

Marka da, gero, zurea. Euskaraz besterik ez duzu hitz egiten eta ingelesez besterik ez idatzi.

Dzieńdobry, neska-mutilak, esnatu, abestiak argi dio, “nous avons toute la vie pour nous amuser”, beraz, let's go!

Ez dugu oraingoan lan handirik hartu ametsa eta etorkizuna bereizten. Jakitun baikara bigarrenak lehena aisa gainditu ohi duela.

7. GIZAGRAFIA

Eskerrik beroena Fagorreko lankide guztiei. Inon meriturik bada beraiena, denona, da. Horiengandik jaso da orriotan bildutakoa. Gure solasaldi, eztabaida eta badaeztatik ateratakoa da hemen idatzi dena. Giza talde horretan den indarra eta kemenak ekarri gaitu hona.

Bibliografia aipatzen hasita, borgesdar samarrak gara. Inoiz inon idatzitako guztiak eta idatzi gabekoen aipua egiteko tentaziora gatoz. Unibertsoaren historia osoak baldintzatzen du istant bakoitza, lipar bakoitzak unibertsoaren istorioa beste.

Hortik gatoz lantxo honen azken esaldia errematatzerara, eta euskararen gure historian bizi dugun gorabehera honek gure bailaran sarritan aipatzen den kontsolamendura gakartza. *Dabilenai pasetan jako.*